

## **Berrikuntza epe luzerako inbertsioa da, eta, hazkunde-aldietan sustatuta, atzeraldiei aurre egin diezaieke**

Krisiak erakutsi du berrikuntzak zelako garrantzia duen enpresen eta gizartearen iraunkortasunerako; horrenbestez, berrikuntza hazkunde-aldietan sustatzea atzeraldiei ahalik eta baldintzarik egokienetan aurre egiteko bidea da. Baina berrikuntza ez da sortuko ingurune egokirik gabe. Akatsa onartzen duen kulturak baino ez du ekintzailera eta berrikuntza sustatzen. Horiek dira Accenturerekin lankidetzan egindako Fundación de la Innovación Bankinter fundazioaren azken argitalpenaren hasierako premisetako batzuk. Argitalpenaren izena hau da: «El arte de innovar y emprender». Horren ondorioak aurkeztu zituen, Deustuko Unibertsitatean, Peter Nicholson Kanadako Akademia kontseiluko sortzaile eta presidente ohiak. Fundación de la Innovación Bankinter fundazioaren Future Trends Forumeko (FTF) adituek uste dute oso zaila dela zehaztasunez definitzea zer den berrikuntza, baina, azkenean, honakoa diote: nahikoa da oinarriak zeintzuk diren jakitea, sustatu ahal izateko.